

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

125. zenbakia

Data 2008-07-01

20618 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

USURBILGO UDALA

Udalaren dirulaguntzen ordenantza. Behin betiko onespena.

USURBILGO UDALA

Usurbilgo Udalaren diru laguntzak arautzeko ordenantza. Behin betiko onespena.

Usurbilgo Udalaren diru laguntzak arautzeko ordenantzaren aldaketak hasieraz onartu ziren 2008/03/25eko ohiko plenoan. Jendaurrean jarritako epean alegaziorik aurkeztu ez denez, ordenantza behin betiko izaeraz onartua ulertzen da.

Testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, 2008ko martxoaren 25ean onartutako akordioaren arabera.

Usurbil, 2008ko ekainaren 13a.—Xabier Mikel Errekondo, alkatea.

(3240) (7439)

Usurbilgo Udalaren Diru Laguntzak arautzeko Ordenantza.

ZIOEN AZALPENA

Diru-laguntzen bidez gauzatutako udal-sustapenak garrantzi handia du bai ekonomiaren ikuspuntutik bai diruz lagundutako ekintzek eta proiektuek gizartean duten oihartzunaren ikuspuntutik.

Udal-sustapenak interes orokorrean duen eragina aintzat hartuta, ezinbestekoa da Usurbilgo Udalaren eta laguntza-hartzaileen arteko harremanak egituratzeko edota arautzeko zuzenbide-esparrua ezartzea eta horren gaineko informazioa behar beste zabaltzea, balizko onuradunek horren berri izan dezaten.

Helburu hori oinarritzat hartuta, zenbait arlo arautzen dira ordenantza honetan: Tartean dauden alderdien betebeharrak, deialdiak arautzeko oinarrien gutxieneko edukia, diru-laguntzak esleitzeko nahiz laguntzak itzultzeko prozedurak eta berrespen-erregimena.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Diru-laguntza eta bestelako laguntza publikoen prozedurei aplikatzeko erregimen orokorra ezartzea da ordenantza honen helburua, betiere diru-laguntza horiek kudeatzeko ardura Usurbilgo Udalarena denean edo haren Organismo Autonomoena eta Merkataritza Elkarreana (euren kapital sozial osoa Udalari dagokion Merkataritza Elkarreana).

2. artikulua. Diru-laguntzen kontzeptua eta motak.

1. Zera hartuko da diru-laguntza edo laguntzatat: Funts publikoak baliatzeko doako ahalmena, Usurbilgo Udalak edo haren Organismo Autonomoek nahiz Merkataritza Elkarrean – alegia, euren kapital sozial osoa Usurbilgo Udalari dagokion Merkataritza Elkarrean – pertsonen edo erakunde publiko nahiz pribatuen eskaintzen dietena, erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jardueraren bat susta dezaten edota helburu publikoren bat lor dezaten.

Bekak eta sariak ere diru-laguntzatat joko dira, eta, horrenbestez, euren oinarrietan arautzen ez den guztia ordenantza honetan ezarritako erregimena aplikatuko zaie.

2. Ordenantza honetatik kanpo utziko dira udal-jabetzako ondasunak doan besterentzeko ahalmena edo horietaz gozatzeko eta aprobetxatzeko lagapena eskaintzen duten laguntzak edo diru-laguntzak. Hala, bada, tokiko erregimeneko ondasunen araudian ezarritakoaren mende egongo dira horiek.

3. Diru-laguntzetan mota hauek daude:

a) Diru-laguntza izendunak: Zehaztuta eta argi eta garbi identifikatuta datoz pertsona onuradunak, eta halaxe agertzen dira Udaleko Aurrekontuen Gastu-egoeran. Administrazio-unitateak edo eskumeneko organismo autonomoak diru-laguntza emateko proposamena egiten duenean, zehatz-mehatz adierazi beharko du bertan zein den diru-laguntzaren hartzailea eta zeintzuk diren diru-laguntza hori baliatuko duten jardueren edo proiektuaren helburu jakinak.

b) Aurre-deialdirik gabeko diru-laguntza zuzenak edo izengabeak: Egoera jakinetan ematen dira, sustatzeko moduko jardueraren batek interes publiko zehatza duenean.

c) Hitzartutako diru-laguntzak: Programa-hitzarmenak, lankidetzak-hitzarmenak eta bestelako itun edo hitzarmenak gauzatzeko eskaintzen dira.

d) Norgehiagoka-erregimeneko diru-laguntzak: Diru-laguntza horiek jasotzeko hainbat eskaera egon daitezkeela kontuan izanik, arauan edo deialdian ezarritako irizpideen arabera eskaeren arteko alderaketa egiten da, diru-laguntzak zeini esleituko zaizkion ebazteko eta laguntza horien diru-kopurua finkatzeko.

3. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. Urte bakoitzean onartutako aurrekontuan horretarako ezartzen diren partidek finantzatu dituzte programak garatzeko Udalak urtero eskaintako baliabideak –Ordenantza honi jarraiki iragarritakoak–, eta partida horietan adieraziko dira diru-kopuruaren mugak.

Diru-laguntzak eta bestelako laguntzak eman ahal izateko, ebazpenenaren unean, derrigorrez, helburu horietarako diru-kopuru egokia eta nahikoa egon beharko du aurrekontuetan.

2. Borondatezkoak eta behin-behinekoak izango dira, legez edo arauz kontrakoa adierazten ez bada.

3. Lehenago eskaintako diru-laguntzen hartzaileak zirenak zirela ere, horrek ez du eraginik izango unean uneko eskatzaileetariko bat hautatzeko garaian, eta, bide beretik, aurreko diru-laguntza horien hartzailea izatea ezingo da aurrekari-argudio gisa erabili, une horretakoak eskuratzeko.

4. Ezingo da laguntzen diru-kopurua handitzea edo berrikustea eskatu, salbuespeneko egoeretan izan ezik.

5. Diru-laguntzak edo laguntzak eskaintzeko, arau honetan ezarritakoari jarraituko zaio, eta, hala badagokio, deialdi bakoitzeko oinarri arautzaileei ere erreparatuko zaie, betiere publizitatea, lehia eta objektibotasuna bermatuta.

6. Publizitatea eta lehia ez dira beharrezkoak izango diru-laguntza izendun eta zuzenetan; ez dira beharrezkoak izango, orobat, diru-laguntzon esleipena eta diru-kopurua Udalak edo haren organismo autonomo nahiz elkarte publikoek betebeharreko arauetan halaxe ezarrita datorrenean.

7. Lehiaketaren bidez eskainiko dira norgehiagoka-erregimeneko diru-laguntzak.

4. artikulua. *Diru-laguntzak eskaintzeko eskumena.*

1. Laguntzak edo diru-laguntzak emateko eskumena izango dute horietarako gastuak baliatze eta baimentzeko ahalmena duten organoek. Nolanahi ere, organo horiek beste batzuen esku utzi ahal izango dituzte diru-laguntzak emateko eskuduntzak, tokiko legedian hala jasotzen bada.

2. Organismo Autonomoetan eta Udaleko Elkarte Publikoetan, berriz, beren estatutuen arabera eskumen hori duten organoek emango dituzte diru-laguntzak, eta estatutuetan ez bada halakorik jasotzen, Organismo Autonomoaren Zuzendaritza Batzordeak edo administrazio-konseiluak izango du eskumen hori.

II. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO JARDUERAN PARTE HARTZEN DUTEN SUBJEKTUAK

5. artikulua. *Pertsona onuradunak.*

1. Pertsona juridikoek zein fisikoek eta erakunde publikoek zein pribatuek izango dute diru-laguntzak eskatzeko aukera, betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute. Usurbilgo udalerrian jarduten duten elkarteek diru-laguntzak lortu gura badituzte, Elkarleen Udal-erregistroan inskribatuta egon behar dute.

2. Honako hauek dira Udaleko diru-laguntzarik eskuratu ezin dutenak:

a) Indarrean dagoen araudiaren arabera, eskubide hori mugatu zaien edo ezabatu zaien eskatzaileek.

b) Jarduera egiteko behar den baimenean aurreikusitako baldintzak ez betetzeagatik, ebazpen irmoz zehatu diren eskatzaileek.

c) Arau honetan jasotako prozedura zehatzailearen ondorioz, diru-laguntzak eskuratzeko eskubidea galdu duten eskatzaileek ebazpenean ezarritako epean.

3. Funts publikoen hartzailea izango da diru-laguntzaren onuraduna, eta diru-laguntza hori eskuratzeko argudiatu zuen jarduera hori gauzatu beharko du, edo diru-laguntza jasotzeko zilegizko egoeran egon beharko du.

4. Salbuespenez, eta dirulaguntza eskabideak 3.000 eurotik beherakoak izanez gero, onuradun izaera izan ditzakete pertsona fisiko edo juridikoen taldeek, publikoak edo pribatuak, ondasun erkidegoek edo unitate ekonomikoa edo ondare bereizia den beste edozein mota, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, udal laguntza edo dirulaguntza lor dezaketen proiektuak edo jarduerak egin nahi dituztenean.

6. artikulua. *Onuradunaren betebeharrak.*

1. Diru-laguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.

2. Jarduera egiten ari dela edo jokabidea hartu duela frogatzea. Orobat, laguntza emateko edo horretaz gozatzeko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea beharko du.

3. Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.

4. Diru-laguntza eskaini duen erakundeak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trazarik ez jartzea, ez eta Kontu-hartzailetzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.

5. Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik– helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.

6. Diru-laguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero –objektiboa nahiz subjektiboa izan–, diru-laguntza eskaini duen organoari aldaketa horren jakinaren gainean jartzea.

7. Indarrean dauden xedapenen arabera, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Ogasunari dagozkionak betetzea –Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileak idatzizko aitortpenen adieraziko du, Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela eta Ogasunari dagozkion betebeharrak betetzen dituela aitortuz.

Ondoko egoeretan soilik ez dute onuradunek Gizarte Segurantzaren aurrean dituzten zerga-betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea behar izango:

a) Diru-laguntzen onuraduna erakunde publikoren bat denean.

b) Ikasteko bekak edo diru-laguntzak direnean.

c) Salbuespenezko kalte luzaezinak ordaintzeko diru-laguntzak direnean.

d) Onuradun eta urte bakoitzeko, 3.000 eurotik beherako diru-laguntzak direnean eta, beti ere, gizarte izaerako laguntza baten onuradun bada.

8. Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko du argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan. Era berean diruz lagundutako jarduerak Euskararen Udal Ordenantza, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartuko du. Gainera, diruz lagundutako jardueran diharduela egiaztatzerakoan, hizkuntza-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak.

9. Diruz lagundutako jardueraren dokumentazio orokorrean, publizitatea barne, Usurbilgo udalaren laguntza dagoela adierazi beharko da.

10. Diru-laguntza eskaintzerakoan, arauan edo deialdiko oinarrietan finkatutakoaren arabera ezarri zaizkion betebehar jakinak betetzea.

III. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ETA ITZULTZEKO EKINTZEN EDUKIA ETA PROZEDURA

1. ATALA. -NORGEHIAGOKA-ERREGIMENEN DIRU-LAGUNTZAK

7. artikulua. Diru-laguntzak arautzeko oinarriak.

1. Diru-laguntzak emateko prozedura ezingo da abiarazi, aldez aurretik organo eskudunak ez badu diru-laguntzen gaineko araua edo deialdia burutu.

2. Ezagutzera eman beharko dira nahitaez bai diru-laguntzak eta gainerako laguntzak eskaintzeko oinarri arautzaileak bai horien deialdiak, eta, horretarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta, ahal dela, udalak komunikaziorako eskura dituen bideetan. Usurbilgo Udaleko administrazio-unitateek, organismo autonomoek eta elkarte publikoek elkarrekin koordinatuta jardungo dute lanean, ahal den neurrian, urtero deialdi bakarra ateratzeko.

3. Diru-laguntzak edo bestelako laguntzak emateko oinarri arautzaileak, gutxienez, ondokoak jasoko dituzte:

a) Diru-laguntzaren edo gainerako laguntzen edukiari, baldintzei eta helburuei buruzko azalpen garbia, zehatza eta doia.

b) Diru-laguntza lortzeko, onuradunak bete beharreko baldintzak, eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentuak eta eskatzen zaizkion baldintzen egiaztatagiriak.

c) Eskariak aurkezteko epeak eta lekua edo saila.

d) Diru-laguntzak bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoen izenak, eta diru-laguntzak emateko proposamena egin behar duen organoaren osaera.

e) Diru-laguntza emateko modua eta irizpide objektiboak, baita horien haztapena ere.

f) Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa edo hori zehazteko irizpideak, eta, beharrezkoa bada, diru-laguntzek izango duten gehieneko zenbateko osoa.

g) Onuradunak diru-laguntzen helburua bete, eta eskuratutako funtsak behar bezala erabili dituela egiaztatzeko aurkeztu beharreko agiriak, eta horretarako izango duen epea eta erabili beharreko modua.

h) Aldi berean beste laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak jasotzeko aukera edo bateraezintasuna. Bateragarritasuna onartzen bada, gehiegizko finantzaketa saihesteko mugak edo irizpideak ezarri beharko dira nahitaez.

i) Diru-laguntza ordaintzeko moduak eta epeak; konturako abonuen eta aurre-ordainketak egiteko aukera egonez gero, horien epeak, ordainketa-modua eta onuradunak eskaini beharreko bermeen erregimen berezia, baita interes publikoa babesteko beharrezkotzat jotzen diren bestelako bermeak ere.

j) Diru-laguntzak edo bestelako laguntzak emateko ezarri ziren baldintzak ez badira betetzen edo jasotako diru-kopurua gauzatutako jardueraren kostua baino handiagoa bada, eskuratutako funtsak itzultzeko betebeharra.

k) Baldintzak ez badira betetzen edo laguntzak itzulgarriak badira, dirua itzultzeko prozedura, eta dirua itzultzetik osorik edo zati batean salbuetsita geratzeko baldintzak.

l) Onuradunaren betebeharra, espedientea izapidetzen duen sailak, Udaleko Kontu-har-tzailetzak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatutako informazio guztia eskaintzekoa.

m) Interes publikoa babesteko beharrezkotzat jotzen diren gainerako berme guztiak, eta, bereziki aurreikusten diren kasuetan, eskainitako diru-laguntzak berrikusteko aukera.

n) Prozedura ebazteko epea; eta, epe horretan ebazpenik eman ezean, diru-laguntzak arau-tzeko oinarrien eta deialdiaren aurka jar daitezkeen errekurtsioak, baita errekurtsio horiek zein organo judizialki eta zein epetan aurkeztu behar zaizkion ere. Zernahi gisaz, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein bide ere erabili ahal izango dute.

o) Jakinarazpen-bidea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59. artikuluaekin bat.

8. artikulua. Prozedura.

1. Organo eskudunak onartutako deialdiaren bidez abiaraziko da diru-laguntzak emateko prozedura, eta dagozkion oinarri arautzaileekin bat etorri beharko du.

2. Pertsona interesatuek berek eskatuta edo administrazioaren kabuz egingo da eskaria, deialdi bakoitzean bete beharreko araudian ezarritakoarekin bat; bestalde, administrazio-prozeduraren arauetan finkatutako eskakizunak bete beharko dituzte, normalizatutako ereduari egokituta.

Eskaerarekin batera, arauan edo deialdian zehaztutako dokumentuak eta informazioak aurkeztuko dira. Salbuespenez, ordurako dokumentuak eta informazioak Administrazio-organo jardulearen esku badaude, eskatzaileak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 35. f) artikuluan ezarritakoa erabili ahal izango du.

3. Eskarian hutsuneak badaude edo ez badira beharrezko dokumentu guztiak erantsi, horiek aurkezteko eskatuko zaio eskatzaileari, eta jakinarazpena jasotzen duen unetik hamar eguneko epea edukiko du dokumentuak aurkezteko. Jakinarazpenean bertan adieraziko denez, epe hori igarota ez baditu dokumentuak aurkezten, eskaria bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, aurretiaz, ebazpena emango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 42. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

4. Prozedura bideratzeko, deialdiaren oinarrietan edo diru-laguntza arautzeko araudian ezarritakoa beteko da, eta, horrez gain, Administrazio Prozedura Erkidearen arauetan ezarritakoari jarraituko zaio, ebazpena emateko kontuan hartuko diren datuak zehazteko, ezagu-tzeko eta egiaztatzeko.

5. Eskariak ebaluatu ondoren, organo instrukzio-egileak eskabideen ebaluaketa aurkeztuko dio kide anitzeko organoari, azken honek informatu dezan. Ondoren, eta aipaturiko txostena kontutan harturik, instrukzio-egileak behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du. eta interesatuari eman beharko dio horren berri, deialdiak ezarritako moduan. Interesatuak, berriz, hamar eguneko epea izango du, alegazioak aurkezteko.

6. Ebazpen-proposamenean, datu hauek agertuko dira: Diru-laguntza emateko proposamenean jaso den eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda eta diru-laguntzaren zenbatekoa. Gainera, proposamena egiteko ebaluazioa eta balioztatze-irizpideak zehaztuko dira bertan.

9. artikulua. Ebazpena.

1. Laguntza edo diru-laguntza eskaintzeko ebazpena behar bezala argudiatu beharko da; hala, hartutako ebazpenaren oinarriak egiaztatu beharko dira beti, eta deialdiaren araua edo oinarriak funtsatzen dituzten irizpide objektiboak adierazi.

2. Berariaz agertu beharko dira, orobat, zein helbururi eskaini zaion diru-laguntza, zein den eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa den diru-laguntza, nola eta zein epetan ordainduko den, nola justifikatu behar den, zein xedapen izan den diru-laguntza eskaintzeko oinarria, eta zer beste baldintza eta eskakizun eskatzen dituzten laguntzaren edo diru-laguntza-ren arauak nahiz diru-laguntzak arautzeko oinarriek. Bestalde, gainerako eskakizun guztien ezetzapena ere berariaz jaso beharko da.

3. Ebazpenean, halaber, horren aurka jar ditzaketen errekurtsoen berri emango zaie interesatuei, baita errekurtsio horiek zein organo judiziali eta zein epetan aurkeztu behar dizkioten ere. Zernahi gisaz, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein bide ere erabili ahal izango dute.

4. Diru-laguntzen zenbatekoak –ez bakarka ez beste diru-laguntzei gehituta– ezingo du inoiz ere gainditu onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.

5. Diru-laguntza arautzeko araudiak ezarriko du prozedura ebazteko gehieneko epea; araudian halakorik jaso ez bada, berriz, hiru hilabetekoa izango da epea. Epe hori igarota, ez bada berariaz ebazpenik eman, eskaera ezeztu egin dela ulertuko da.

6. 3000 euro baino gehiagoko dirulaguntzak direnean, Ebazpena Udaletxeko iragarki-oholean eta Gizpuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. ATALA. HITZARTUTAKO DIRU-LAGUNTZAK.

10. artikulua. Prozedura.

1. Interesatuaren eskariz abiaraziko da espedientea, eta, eskariarekin batera, dokumentu-multzo hau aurkeztu beharko da:

a) Eskatzaileak dokumentu batean azaldu beharko du diru-laguntza jasotzeko aurkezten duen jarduera hori zergatik den Udalaren helburuetarako eta haren eskumenak garatzeko osagarria edo lagungarria –eta, ondorioz, lagapena edo diru-laguntza jasotzeko modukoa.

b) Aurkezten duen jarduerak udalerriarekin zein lotura duen azaldu beharko du eskatzaileak. Gainera, ekonomia-baliabideak zein jardueraren edo zerbitzuren bidez jasotzen dituen adierazi beharko du, baita jarduera horretan, udalerriekin lankidetzan aritzeko zein aukera ikusten dituen ere.

c) Eskatzaileak egoki irizten dion bestelako dokumentazio osagarria ere aurkeztuko du.

2. Administrazio-unitate edo organismo autonomo eskudunak izapidetuko du espedientea, ordenantza honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bestalde, hitzarmen-esparrua ezarriko da, eta bertan etorriko dira zehaztuta udal-lankidetzeta, hala badagokio, eskatzailearen kontra-ordaina.

3. Hitzarmenaren kontrola eta segimendua gauzatzea izango da proposamena egin duen unitatearen edo organismo autonomoaren ardura.

Laguntza eskaini zen unean aintzat hartutako alderdi guztiak izango ditu kontuan kontroleko eta segimenduko jarduerak.

Helburu jakineko banakako diru-laguntzetan, unitatearen edo organismoaren ardurakoa izango da beti diru-laguntza hitzarmenean zehaztutako helbururako erabili ote den egiaztatzea.

4. Eskaera guztiarekin eratuko da espedientea, eta hiru hilabeteren buruan eman beharko da horren gaineko ebazpena. Ebazpenak arrazoitua izan beharko du beti; alegia, eskaera onartzeko edo ezezteko zergatiak azaldu beharko ditu. Eskaera aurkeztu zenetik hiru hilabetera ez bada berariazko ebazpenik ematen, eskariari ezezkoa eman zaiola ulertu beharko du eskatzaileak.

5. Erakunde pribatuekin adostutako lankidetzeta-hitzarmen guztien berri eman beharko du Udalak, herrian eskura dituen komunikabideen bidez.

3. ATALA. -AURRE-DEIALDIRIK GABEKO DIRU-LAGUNTZA IZENGABEAK

11. artikulua. Prozedura.

1. Interesatuaren eskariz abiaraziko da aurre-deialdirik gabeko diru-laguntza izengabeak emateko prozedura.

2. Arau honetako 6. artikuluan adierazitako dokumentazioa erantsi beharko zaio laguntza-aren edo diru-laguntza-aren eskariari.

3. Laguntza edo diru-laguntza eskaintzeko ebazpena behar bezala argudiatu beharko da; hala, hartutako erabakiaren funtsak egiaztatu beharko dira beti, eta diru-laguntza emateko objektiboak adierazi. Era berean, interes orokorreko arrazoiak frogatu behar dira, bai horren gainean txosten teknikoak adierazitako moduan bai ebazpenean bertan jasotako moduan.

Udaleko sail edo jarduketa-esparru bakoitzean diru-laguntza mota horrentzat dagoen kopurua adieraziko da jendaurrean.

Eskaini diren diru-laguntza guztien berri emango du Usurbilgo Udalak, herrian eskura dituen komunikabideen bidez.

4. ATALA. DIRU-LAGUNTZAK ORDAINTZEA

12. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea.

1. Diru-laguntza emateko zergatia izan zen helburua bete dela egiaztatu ostean ordainduko da diru-laguntza.

2. Dena dela, diru-laguntzaren funtsak berak eskatzen duenean, konturako abonua egin ahal izango dira. Konturako abonua horien bidez, diru-laguntza zatika ordaindu ahal izango da. Halakoetan, diruz lagundutako ekintzak burutzen joan ahala egingo da zatikako ordainketa, eta aurkeztutako egiaztapenari dagokion kopurua ordainduko da aldiro.

3. Aurre-ordainketak ere egin ahal izango dira; halakoetan, deialdiaren oinarrietan ezarriz gero, jarduera justifikatu aurretik eskaintzen dira funtsak, betiere, diru-laguntza horri lotutako jarduerak burutzeko ezinbestekoa denean dirua alde aurretik eskuratzea.

13. artikulua. Diru-laguntzak aldatzea.

1. Diru-laguntzak eskaintzeko kontuan hartutako baldintzetan aldaketarik badago edota aldi berean beste Administrazioako laguntzak jasotzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Baldintza hori diru-laguntzen arauetan jaso beharko da beti.

2. Dagokion ekonomia-ekitaldia amaitukoan, Udaleko Sailek, Organismoek eta Elkarte Publikoek burututako diru-laguntzen programak balioztatu beharko dituzte, batetik, lortutako emaitzak, erabilgarritasuna nahiz gizarte-eragina aztertze eta, bestetik, egokiena programa horiekin jarraitzea edo bertan behera uztea ote den ikusteko.

5. ATALA. DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA.

14. artikulua. Eskaintako diru-laguntzen erabilera justifikatzea.

1. Diru-laguntza emateko oinarri arautzaileetan ezarritako beste justifikazio-moduen kaltetan izan gabe, diru-laguntzak finkatutako helbururako erabili ote diren egiaztatu beharko dute erakunde onuradunek, eta, horretarako, ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

a) Obra edo instalazioren bat egiteko eskaini bada diru-laguntza, teknikari eskudunen egiaztagiria eta fakturak aurkeztu beharko dituzte. Udalaren esku egongo da udal- teknikariei obra edo instalazio horien gaineko txostena eskatzea ala ez.

b) Material suntsigarria eskuratzeko, zerbitzuren bat emateko edo antzeko jardueretarako eman bada diru-laguntza, jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak eskatuko zaizkie.

c) Organismo autonomoak eta udal-partaidetzako elkarteak direnean onuradunak, urteko kontuen barruan aurkeztuko dute justifikazioa.

d) Lankidetzeta-hitzarmenetan adieraziko da hartzaileak funtsen erabilera nola justifikatu behar duen. Aldez aurretik ezarritako aldizkakotasunez honako datuok aurkeztu beharko ditu: Diruz lagundutako jarduera egiteko izan dituen gastuen egiaztagiria, eta, hala badagokio, programaren edo jardueraren bidez lortutako diru-sarreraren egiaztagiria. Egiaztagiri horiek, ezinbestean, bat etorri beharko dute diru-laguntzaren helburua lortzeko gastuekin, eta, horrenbestez, justifikazio gisa ez dira onartuko beste helburu batzuk erdiesteko izandako gastuak.

Diru-laguntza eskaini zitzaion jarduera amaitzen denean, dokumentu hauek aurkeztu beharko zaizkio dagokion Sailari:

a) Gauzatutako jarduerak azaltzen dituen memoria –lortutako emaitzak barne.

b) Diru-laguntzari esker burututako jardueraren barruan egindako azterketen, programen, argitalpenen, iragarki-kartelen eta dokumentazio grafiko zein idatzizko guztiaren ale bana.

2. Onuradunek aurkeztutako egiaztagiriak Udalean diru-laguntza izapidetzen duen sailera igorriko dira, eta, bertan, egiaztagiriak ikuskatu, eta funts publikoak diru-laguntza jaso zuten jardueretan erabili ote diren aztertuko dute.

IV. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

15. artikulua. Itzulketa.

1. Jasotako diru-kopurua itzultzea eta laguntza edo diru-laguntza ordaindu zenetik sortutako berandutzako interesa eskatzea bidezkoa izango da, hauetako egoeraren bat gertatzen denean:

- a) Ezarritako moduan eta epeetan ez denean adierazten eskuratutako funtsak nora bideratu diren.
- b) Eskatzen ziren baldintzak bete gabe, diru-laguntza jaso denean.
- c) Ez direnean betetzen diru-laguntza emateko onuradunei ezarri zitzaizkien baldintzak.
- d) Ez denean betetzen laguntza edo diru-laguntza ematerakoan ezarrita zegoen helburua.
- e) Organo eskudunen kontrol-jardunak oztopatzen direnean edo horiei uko egiten zaienean.
- f) Laguntza edo diru-laguntza bakoitzaren araudi jakinean aurreikusitako gainerako egoeretan.
- g) Eskainitako laguntzen edo diru-laguntzen zenbatekoa onuradunak gauzatatutako jardueraren kostua baino handiagoa bada, horien arteko diru-aldea itzuli beharko du, eta berdin izango dio diru-kopurua laguntza bakarretik eskuratu duen ala, aitzitik, estatuko zein nazioarteko beste Administrazio publikoek edo Erakunde Publiko nahiz Pribatuak aldi berean eskainitako beste batzuei gehituta lortu duen. Aldi berean bi Administrazio Publikoren edo gehiagoren diru-laguntzak izan dituelako aipatutako gehiegizko diru-kopuru hori eskuratu badu onuradunak, laguntza-emaileen diru-kopurua hainbanatu egingo da, gehiegizko diru-kopuru hori itzultzeko.

2. Zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko da itzuli beharreko diru-kopurua, eta adierazitako epeetan ez bada itzultzen, premiamenduzko prozedura ezarriko zaio.

16. artikulua. Itzulketa-prozedura.

1. Diru-laguntza eskaini zuen organoak izango du diru-kopurua osorik edo zati batean eskatzeko ebazpena emateko eskumena.

2. Administrazioaren kabuz –organo eskudunaren akordioz– abiarazi ahal izango da diru-laguntzak itzultzeko prozedura, baita beste organo batzuen ekimenez edo eskariz jarritako salaketaren bidez ere.

3. Prozedura abian dagoela, hori ebazteko eskumena duen administrazio-organoak, ofizios nahiz interesatuaren eskariz, egokitzen jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, epaiketa-gai izango balitz emango litzatekeen ebazpenaren eragingarritasuna bermatzeko.

4. Prozedura izapidetzerakoan, entzuna izateko eskubidea bermatuko zaio beti interesatuari.

5. Eskainitako diru-laguntza osorik edo zati batean txarto erabili dela ziurtatu ostean, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du; bertan, dirua itzultzeko zergatia edo zergatiak azalduko ditu berariaz, eta, horrekin batera, Udaleko Altxortegian itzuli beharreko zenbatekoa, modua eta epea adieraziko ditu. Orobat, adierazitako epean dirua itzultzen ez badu premiamenduzko prozedura ezarriko dela jakinarazi, eta ebazpen horren aurkako errekurtsio-erregimenaren berri emango dio.

6. Zerga-ordenantzetan (Zerga-ordenantza Orokorrean) Tokiko Zuzenbide Publikoko zergen eta diru-sarriren gainean ezarritakoaren arabera bideratuko da premiamenduzko prozedura.

7. Dirua itzultzea eragin duten gertaerek Administrazio-organoko arauak hautsi baditzakete, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio, prozedura zehatzailea abiaraz dezan.

V. KAPITULUA

URRATZEEN ETA ZEHAPENEN ERREGIMENA

17. artikulua. Urratzeak.

Onuradunek egindako ondoko ekintzetan edo omisioetan, doloa, errua edo arduragabekeria - hutsa badago, ekintza edo omisio horiek diru-laguntza eta laguntza publikoen arloko administrazio-urratzeak izango dira.

1. Oso urratze larriak: Honako hauek izango dira:

a) Diru-laguntza edo laguntza emateko eskakizunak aizunduz edo diru-laguntza eskaintzeko oztopo edo muga izango liratekeen arloak ezkutatuz laguntzak edo diru-laguntzak lortzea.

b) Diru-laguntzak, guztiz edo zati batean, zegozkien helburuetarako ez erabiltzea. Ez da, ordea, administrazio-urratzetzat hartuko, inork eskatu aurretik onuradunak diru-kopurua itzuli badu.

c) Ordenantza honen 6.4 artikuluan jasotzen diren egiaztatze-jarduketei traba jartzea, baldin eta honen ondorioz ezinezkoa izango balitz dirulaguntzaren erabilpena ezagutzea, diruz lagunduriko iharduerak egiaztatzea, edota jasotako bestelako laguntzen berri izatea.

2. Urratze larriak: Honako hauek izango dira:

a) Diru-laguntza eskaini duen erakundeari ez jakinaraztea helburu berberetarako beste laguntza edo diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituela estatuko zein nazioarteko beste edozein Administrazioaren edo erakunde publiko nahiz pribaturen eskutik. Arau-urratzea izango da, halaber, diru-laguntza jasotzeko arrazoi izandako egoeraren batean aldaketaren bat jazo dela ez adieraztea.

b) Diru-laguntza ematerakoan onuradunak bere gain hartutako betebeharrak hari egotz dakizkiokkeen arrazoiengatik ez betetzea.

c) Eskuratutako laguntzak zati batean nahiz osorik nola erabili diren ez egiaztatzea, udalak emandako epearen barruan.

3. Urratze arinak: Honako hauek izango dira:

a) Dirulaguntzaren erabilpena justifikatzen duten kontuak epez kanpo aurkeztea.

b) Dirulaguntzaren erabilpena justifikatzen duten kontuak osatu edo zehaztu gabe aurkeztea.

c) Kontabilitate- edo erregistroko betebeharrak ez betetzea.

d) Justifikatzeko agiriak ez gordetzea, beharrezkoa denean.

e) Kontrolerako organoek eskaturiko frogak eta dokumentuak ez aurkeztea edo ez erakustea.

f) Diruz lagundutako ihardueraren dokumentazioan, publizitatea barne, Usurbilgo Udalaren lagunza dagoela ez agertzea.

g) Ordenantza honetan ezarritako hizkuntzari buruzko erizpideak ez betetzea.

h) Lege eta Ordenantza honen bestelako urratzeak, larriak edo oso larriak ez direnean.

4. Urratzeak lau urtera preskribitu dira. Urratzea egin den egunetik aurrera abiaraziko da preskripzio-epea.

18. artikulua. Zehapenak.

Administrazio-urratzeak ondoko eskalaren arabera zehatuko dira:

1. Urratze oso larriak:

a) 3.001 €-tik 6.000 €-ra edo emandako laguntzaren %200etik %300era bitarteko isuna jarriko da onuradunak diru-funtsak modu bidegabean jaso dituenean. Honetarako, kontuan izango da bidegabeki eskuratu duen edo aplikatu zaion kopurua.

b) Onuradunei laguntzak edo diru-laguntzak jasotzeko eskubidea kendu ahal izango zaie gehienez bost urtez, laguntza horiek Usurbilgo Udalaren, haren Organismo Autonomoen eta Merkataritza Elkarteen (euren kapital sozial osoa Udalari dagokion Merkataritza Elkarteen) eskutik jasotzen dituztenean.

c) Gehienez bost urtez, debekatu egingo zaie hitzarmenak egitea Usurbilgo Udalarekin, Udalari lotutako zein Udalaren menpeko Organismo Autonomoekin, eta euren kapital sozial osoa Udalari dagokion Merkataritza Elkarteekin.

d) Dirua itzuli behar izateaz gain, isuna ezarriko zaie.

2. Urratze larriak:

a) 501 €-tik 600 €-ra edo emandako laguntzaren %100etik %200era bitarteko isuna jarriko da onurduak diru-funtsak modu bidegabean jaso dituztenean. Honetarako, kontuan izango da bidegabeki eskuratu duen edo aplikatu zaion kopurua.

b) Onuradunei laguntzak edo diru-laguntzak jasotzeko eskubidea kendu ahal izango zaie gehienez hiru urtez, laguntza horiek Usurbilgo Udalaren, haren Organismo Autonomoen eta Merkataritza Elkarteen (euren kapital sozial osoa Udalari dagokion Merkataritza Elkarteen) eskutik jasotzen dituztenean.

c) Gehienez hiru urtez, debekatu egingo zaie hitzarmenak egitea Usurbilgo Udalarekin, Udalari lotutako zein Udalaren menpeko Organismo Autonomoekin, eta euren kapital sozial osoa Udalari dagokion Merkataritza Elkarteekin.

d) Dirua itzuli behar izateaz gain, isuna ezarriko zaie.

3. Urratze arinak:

a) Urratze arinak egiteagatik 75 euroko isuna ezarriko da, baina salbuespenak izango dira ondoko atalean ezarritakoak.

b) 150 eta 6.000 euro bitarteko isuna ezarriko da ondoren azaltzen diren urratze kasuetan:

— Kontabilitate- edo erregistroko betebeharrak ez betetzea.

— Justifikatzeko agiriak ez gordetzea, beharrezkoa denean.

— Kontrolerako organoek eskaturiko frogak eta dokumentuak ez aurkeztea edo ez erakustea.

4. Artikulu honetan jorratu gabeko urratzeek eragindako zehapenak mailakatzeko, beste zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola, urratzaileek zer asmo zuten, diru-laguntzen edo laguntzen arloan arauak behin baino gehiagotan urratu ote dituzten, urratzeetan nola parte hartu duten, zein etekin atera duten, eta zein kalte eragin dituzten.

5. Artikulu honetan aurreikusitako zehapenak jasotzeaz gain, urratzaileek dirua itzuli behar izango dute, araudi honetan adierazitakoari jarraiki.

6. Zehapenak ezartzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak adierazitakoa hartuko da oinarritzat, hain zuzen ere, lege horrek abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren –zigortzeko ahalmena erabiltzeko prozeduraren Erregelamendua onartzen duenaren– gainean adierazitakoa.

7. Administrazioaren kabuz abiarazi ahal izango da espedientea, betiere, diru-laguntza eskaini duen organoak burututako ikerketaren bidez edota Kontu-hartzaileak ekonomia eta finantzak kontrolatzeko gauzatutako jarduketan edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketan bidez, horretako arrazoiak jasotzen badira.

8. Kudeaketako, kontroleko edo fiskalizazioko jarduketetan agerian geratzen denean balitekeela onuradunak arau-hauste penala dakarren ekintzaren bat edo omisioren bat egiten ari-tzea, Administrazioak eskumena duen jurisdikzioari emango dio horren berri, eta zehatze-prozedura eteteko erabakia hartuko du, harik eta ebazpen judizial irmoa ematen den arte. Agintari judizialek ezarritako zigorrak kanpoan utziko du Administrazioak ezarritako zehapena, subjektu berberari ezartzen bazaio, gertaera berberengatik eta zehatze-prozeduran aintzat hartutako oinarri berarekin.

9. Zehapenak lau urtera preskribituko dira, dagokion ebazpena irmoa den biharamunetik kontatzen hasita.

19. artikulua. Erantzukizun subsidiarioa.

1. Pertsona hauek izango dute dirua itzultzeko eta zehapena betetzeko erantzukizun subsidiarioa: Urratutako betebeharrak betetzeko euren ardurako ekintzak egin ez dituzten pertsona juridikoek, arau-urratzeak ahalbidetu dituzten akordioak egin dituztenek edota euren mendekoei arauak urratzea onartu dietenek.

2. Era berean, pertsona juridikoek dirua itzultzeke eta zehapenak betetzeke dituztela euren jardunak bertan behera utzi badituzte, horien administratzaileak gertaeren erantzule subsidiarioak izango dira beti.

3. Sozietateak edo entitateak desegiten edo likidatzen direnean, ordaintzeke duten dirua eta betetzeke dituzten zehapenak bazkideei edo kapitaleko parte-hartzaileei igaroko zaizkie, eta zergen erantzule solidarioak izango dira, esleitu zaien likidazio-kuotaren balio-mugaraino.

20. artikulua. Aldi berean beste espediente zehatzaile batzuk izatea.

Diruz lagundutako jarduera aurrera eramateko behar diren baimenak ez badira betetzen, dagokien zehapen-espeditenteak abiaraziko dira, eta baimena eman zuen administrazio-unitateak izapidetuko ditu espeditenteok.

Jasotzeke dauden diru-laguntzen kopuruetatik ordaindu ahal izango dira espediente horietan ematen diren diru-zehapenak.

21. artikulua. Ondasun publikoetan eragindako kalteak.

Diruz lagundutako jardueraren eraginez, kalteak sortuko balira jabetza publikoko ondasunetan, kontraesaneko espedientea izapidetuko litzateke, kalte horiek ebazteko. Sortutako kalteak konpontzeko edo birjartzeko zenbatekoa jasotzeke dagoen diru-laguntzari kenduko zaio. Ordaindu beharreko kopuruak diru-laguntzaren zenbatekoa gainditzen badu, beharrezko neurriak hartuko dira, gainerako kopurua kobratzeko.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik emandako dirulaguntzek eskaini zireneko unean indarrean zegoen araudiari jarraituko diote.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau sartuko da indarrean hamabost eguneko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, halaxe ezartzen baitu, apirilaren 2ko, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen 77/1985 Legearen 70.2 artikulua».